A GALDE-SORTA | ANTOLAMENDURAKO ERABILTZEN DIREN HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

→ Hizkuntza Proiektuaren batzordeak betetzekoa

7.1.1. Ikasleak taldekatzeko irizpideak

Zer irizpide hartzen dira kontuan ikasleak taldekatzeko orduan? Kontuan izaten duzue ikaslearen lehen hizkuntza? Eta atzerriko hizkuntza? Erabiltzen diren irizpideak eta hauen zergatia azaldu.

Erabiltzen diren irizpideak egokiak dira? Zerbait aldatu beharko litzateke?

Zer egiten dugu?	*Zer hobetu behar dugu?*

Badago ikastetxean sisteman sartzen diren ikasle berrientzako Harrera Planik? Talde batean edo bestean jartzeko, hizkuntza kontuan izaten da?

Egiteko modua egokia da? Zerbait aldatu beharko litzateke? Harrera Plana egin edo berregin beharko litzateke?

Zer egiten dugu?	*Zer hobetu behar dugu?*

Ikasleen aniztasunari begira, hizkuntzarekin lotutako antolamendurako neurri berezirik hartzen da? Indartze neurrietan? Ikasle etorri berriekin? Premia berezietako ikasleekin?

Hizkuntza kontuan hartzen da? Era egokian? Zerbait aldatu beharko litzateke?

Zer egiten dugu?	*Zer hobetu behar dugu?*

7.1.2. Euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntzetan emandako orduak eta arloak

Zenbat ordu ematen dira euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntzetan? Zer arlo ematen dira euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntzetan? Egokia da dugun ordu banaketa eta antolaketa curriculum proiektuan ezarritako hizkuntza helburuak lortzeko?

Hizkuntza bakoitzari ematen zaion ordu kopurua nahikoa da? Gehitu edo gutxitu beharko litzateke? Helburuak lortzeko, zer neurri hartu beharko lirateke?

Zer egiten dugu?	*Zer hobetu behar dugu?*